


2010 Gabon zar  
2011 Urte barri

Bizkaitarrei Bizkaieraz

# ZAR

367n. zenbakia • 2011 Urtarrilla-Otsaila



[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)  
[www.euskerazaintza.org](http://www.euskerazaintza.org)

## Kun-Kun

Ez negar egin. Nik emango, bai,  
sagar bat ximel-ximela:  
amoña bezain ximurra eta  
goxoa bera bezela.  
Au janaz, ondo, magaletxoan  
atsegindurik aurrena,  
seaskan lo lo, nere potxolo,  
jarriko zaitut berela.

Ekatzu muxu  
gero lo egin dezazun.  
Lo, lo, tira maitea;  
lo, lo... kunkun, kunkun...

Aingeru maite zoragarria  
zorigaitz bat eztezuna,  
seaskan orla mugira geldiz  
amets egiten dezuna;  
zeñen goxoak diran zuretzat,  
nere maitetxo kutuna,  
amon xarraren kantuak eta  
seaskatxoan kunkuna!...

(E. Arrese 'k)

Bakioko  
Toponimia-IV



P. A. Goiri

# Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

## 2010-2011 IKASTURTEA

**BIZKAIERA 43. IKASTAROA  
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

**43.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO  
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN**

Egunak: astelen, eguasten eta barikuetan edo  
astearte eta eguenetan

Días: lunes, miércoles y viernes,  
o martes y jueves

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Horas: Mañana, tarde y noche

Ordaña: 140 €

Curso completo: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2  
urrutizkiña 94 423 53 22  
Bilbao

Colón de Larreategi, 14-2  
Teléfono 94 423 53 22  
Bilbao

Asiera: urriaren 11an

Comienzo: 11 de octubre

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:**

**EUSKERA ZALEAK  
BILBAO BIZKAIA KUTXA  
2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**  
**Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.**  
**Ez dozu ezer be idatzi bear.**  
**Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**  
**Eskerrik asko!**

## Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

[www.euskerazaleak.biz](http://www.euskerazaleak.biz)

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila  
Departamento de Cultura


ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

[www.flashcomposition.com](http://www.flashcomposition.com)





# Bakioko Toponimia-IV

## Leku-izenak normalduteko jarraibide batzuk.

Leku-izenak normalduteko ikertu egin bear da, leenengo-leenengo, euren arlo etimologikoa eta filologikoa zeintzuk diran kontuan artuteko. Orrekaz batera, beste batzuen artean, agozko zein idatzizko erabilkerak be ezin leitekez bazterrean aaztuta itzi. Toponimia normaldu ostean, normaltze orrek eguneroko erabilkeran eragina euki bearko leuke, au da, administrazio idazkietan, jaubego agirietan, kaleko zein bideko errotulazinoan, mapetan, liburuetan, edabideetan, biztanleen agoetan, ... Ori da-eta normalkuntzearen azken elburua.

## Leku-izena aukeratutea

Leku baterako izen bat baino ez daukagunean, axe normalizatuko dogu. Izen bat baino geiago daukagunean, ostera, eurretari bat aukeratuko dogu. Alan bada, leku-izenok:

- itxura ezbardinekoak badira, etimologia batekoak diran ala ez ikertu

bear da: **Oiaga / Ozagas, Andramarieta / Andraminta**, alan bada, era osoagoaren alde egin bearko litzake: Oiaga, Andramarieta.

- euren artean zerikusi andirik ez badauke, daukagun informazio guztia

ondo aztertuko dogu:

- idatziz zenbat bider eta noz agertu dan
- zein izan dan azkenengo emoitzea
- agoz zelan erabilten dan, nortzuk eta zenbatetik erabilten daben
- zeri egiten deutson erreferentzia (lekua, pertsona, ...)

Alan be, leku batek era bi, izen bi daukazanean, bata zaarra (idazki zaarretan dagoana) baina gaur eguneko erabilkeran galduta, eta bestea barria eta agoz erabilten dana, ezin leiteke bata edo bestea baztertu, biak onartu baino.

## Leku-izena zelan idatzi

Normalean, aukeratutako leku-izena normalduteko idatzizkoa eukiko dogu oinarritzat. Orretarako, gaur eguneko idazteko arauak aalik eta geien eukiko doguz gogoan. Bakioko berbetearen (agoskerearen) ezaugarri batzuk, baina, ez dira agertuko, izenaren jatorrizko ereari eutsi arren be. Esate baterako,

- amaieran leku-izenak bokalik badauka, artikulua singularra artukeran, alantxe idatziko dogu:

- a + a → -ea (-ie)    **Mota+a → Motea / motié**
- e + a → -ea (-ie)    **Abadetxe + a → Abadetxea / abadetzié**
- i + a → -ia (-idxe)    **Karabi + a → Karabia / kárabidxe**
- i + o → -oa (-oa)    **Arro + a → Arroa / arroá**
- u + o → -ua (-ue)    **Bekortu + a → Bekortua / bekortué**
- i + (a, e, o, u) → -ia, -ie, -io, -iu (-idxe, -idxe, -idxo, -idxu) izenaren barruan daukagunean:

Zubiaurre / súbidxaurre

Benguriena / búnguridxene

Anadio / anádidxo ...

- bokal arteko kontsonantea galduten dan ezkerro, bokal luzeak:

Ziitzea / sítzie

Maastia / mástidxe ...

- i + t → -it (-tx) izenaren barruan bustidurea daukagunean:

Ermitondo / ermítxondo

Kandelaiturri / kandelitxurri ...

- “z, ts, tx” txistukarien neutralizazinoa (s, tz, tz):

Karabizarra / karabisarré

Atsosolo / atzósolo

Goikoetxea / goiketzé ...

- j sabaikaria (dx):

Jata / dxatá

Jauregi / dxéuri ...

Agozkoari be bidea egingo jako batzuetan (agirietan idatzita agertu ezean):

- -n + z → tz afrikaria:

Ardanza → Ardantza

Ormaza → Ormatza

- -tx + (b, g, k, l, m, n, p, t) → -x(b, g, k, l, m, n, p, t) frikaria:

atx + biribil + a → Axbiribilla

atx + gan + pe → Axganpe/Axkanpe

atx + kada → Axkada

atx + motz → Axmotz

atx + nabar + a → Axnabarra

aritx + pe → Arixpe

aretx + ti → Arexti

- -i + z → x/-i + x frikaria:

eleiz + alde → Elexalde

aize + eder + a → Aixederra

- i + l → -i + ll sabaikaria:

Artezillaga

Lukizillo

- i + n → -i + ñ sabaikaria:

Gaztaiñatxueta

Andiño

- antxina dago galduta “h”-ren erabilkerea agozkoan. Leku-izenak, bada, bertako tradizioari eutsiz, “h” barik idatziko dira:

Aixederra - Andikosolo - Arezabal - Arixbakarra - Arriluze - Atxaga - Aumerreka - Auntzerri - Eitzaga - Goikomaasti - Iruaretxeta - Ormatza - Tabernazarra - Zearratxa - Ziialde ...

Bakioko (Bizkai) euskerearen aldaera lexikalak onartu beariko dira: baltz, barri, bedar, burdi, eleiz, gan/gane, gorta, atx, aretx/aritx, idar, iko, leizar, mustur, solo, toki, txarri, uri, zilo, ...:

Zubibaltza - Uribarribekoa - Bedartzako sakona - Burpidieta - Elexalde - Larragan - Gortena - Sokatxa - Aretxeta - Idarraga - Ikobaltzaga - Leizarreta - Irumusturra - Goitisol - Txarrisolo - Uribe - Lukizillo  
...



Leku-izenak zati espezifikoa baino ez badauka: **Aldapa, Arroa, Ibarra, Motea, Ortua, Zarratua, Zelaia, ...** Baina zati espezifikoa eta generikoa bitzua daukazanean batera idatziko dira: **Bazpibaso, Bekosolo, Etxebarri, Goienburu, Goikoetxea, Mariortu, ...**

Zati bion arteko loturea bokal bardina bada, idatzizkoan normalean, marratxu batek lotuta agertu daroa leku-izenak. Batera idatziko doguz, baina, bokal bakarra agertuten dala: **Abadetxea, Aixederra, Arterreka, Artzalde, Atxandia, Aumerreka, Bekortu, Bengolea, Bentaurre, Bide-txalde, Bidetxe, Errekalde, Errekarte, Etxalboa, Gaziturri, Goikolea, Goikortu, Sokatxa, ...** Agozkoan besterik egiten bada, axe onartuko da: **Arietxe, Aritxamieta, Burpidieta, Erlieta, Iramieta, ...**

Bokal bi orreek ezbardinak izan ezkerro, idatzi egingo dira beti: **Bekoerrot, Goikoetxea, Gorteta, Iraeta, Iruaretxeta, Kontxaondo, Larraoneta, Mariortu, Matxaerreka, Sardiñaiturri, Ziialde, Zubiaurre, Zubiondo, ...** Agozkoan eta idaztietan besterik egiten bada, orduan axe onartuko dogu: **Benguriena, Ermitondo, Errekondo, Fraileatxa, Larrondo, ...**

Ostera, leku-izenaren zati biok bananduta agertuko dira, bigarrena izen generikoa eta artikuluduna bada (arlotu geografikoaren izakerea adierazoten dauala), eta txikerraz idatziko da. Leenengo zatia “-ko” deklinabide atzizkiduna izango da: **Aretxetako zubia, Aterriko mailak, Etxeaurreko soloa, Gazadiko sakona, Kurutzeko atxa, Larraziñako kurutzea, Oiagako erreka, Sagarragako basoak, Zabaleko iturria, Zumarretako landea, ...**

Baina bigarren zati ori artikulua bakoia danean, batuta idatziko doguz: **Andikosolo, Areagakolanda, Aurrekosolo, Barrukosolo, Bekoerrot, Erdikobenta, Goikortu, Lorrekoibi, ...** Baina baita oneek (eraikuntzak) batuta be, artikuludunak izan arren: **Andikoetxea, Aurrekoetxea, Bengolea, Garaikoeetxea, Goikoetxea, Goikolea, ...**

Leku-izen orren zati biren artean deklinabideko genitibo "ren" (agozkoan "-re-" ori galdu arren) agertuten bada, zatiok bananduta idatziko doguz: **Abioren tokia, Barberurenkurutze, Luisenarixti, Sotaren basoak, Tioluisen soloa, Tionikolasen soloa, ...**

Zati bion arteko loturea kontsonante berbera danean, marratxu batek batuko ditu zatiok: **Markes-solo, ...**

## Azentua

Azentuaren ganean aurrean esandakoa kontuan artu bearke litzake leku-izenak normaldu orduko. Zeozelan bada, azentu ori markatu bearke litzake, azentua bear dan moduan erabili gura bada, beintzat. Bertoko (Bakioko) azentuerea gorde bear da eta erbestetik datozenak azentu orren barri euki bearke leuketee. Agozkoa, bada, kontuan artu bearke litzake azentua aditzera emotekotan. Toponimoa idatzizkotik artu bada, gaur eguneko erriko euskerearen agoskera arauak zein azentua ezarriko jakoz.

## Artikulua

Artikulu bakoak:

Gaur egun, leku-izenetan, agozko jokera nagusia, beintzat, eurok artikulu barik erabiltea da. Idazti zaarretan oster, orreotariko leku-izen asko artikulugaz agertuten dira:

Bengouria / bengúri

Goikoetxea / goiketxé

"a" bokala izenaren amaieran egon eta aurreko kontsonanteagaz silaba bat egin ezkerroan, bokal organikoa izango da eta beti egongo da or: **Aldapa, Areagakolanda, Aremuna, Benta, Eitzaga, Erlieta, Mota, ...**

Agozkoan artikuludun leku-izen asko izen proptozat artuten dira, "a" artikulua organikoa balitz lez. Orreotariko askoren amaiera "e" izaten da agozkoan. Leku-izen orreek deklinatu be, osorik deklinetan dira (dxéurrisarren egon nas / zaarreen): **Aixederra, Andiñobarrena, Arixbakarra, Arrilabana, Atxandia, Atxokerra, Axnabarra, Fraileatxa, Ganbiribilla, Ibarra, Irumusturra, Jauregizarra, Landatxubizkarra, Lapikolurra, Pozuilluna, Saillamakurra, Solotxikerra, Solozabala, Subiltegisakona, Uradariona, Urrezilla, Zarrakoa, Zubibaltza, ...**





“e” bokala badago amaieran: Axganpe, Mendialde, Uriarte, Sakristaueixe, Zubiaurre, ...

“i” bokala badago amaieran: Amezti, Belategi, Elorretazpi, Jatamendi, Kandelaiturri, Sagardi, Zurtzuri, ...

“o” bokala badago amaieran: Andiño, Dukebaso, Goitisol, Lukizillo, Zubiondo, ...

“u” bokala badago amaieran: Bekortu, Elexpuru, Errekatu, Orbeleku, Urkuillu, Zumusu, ...

Kontsonantea amaieran badago: Baratiz, Bentazar, Larragan, Arezabal, Mendiguren, Solobiribil, ...

## Artikuludunak:

“a” bokala, silaba ezbardinekoa dan beste bokal baten atzean badago, orduan artikulua izango da: Armurua, Arroa, Aurrekoetxea, Axnagusia, Beitia, Bengouria, Burgoa, Goikolea, Goitia, Karabia, Mintua, Teillera, Zaitua, ...

- “-ko/-en” genitibozko atzizkia daukenai “-a” artikulua geituko jake, zelan edo alango entidaderik ez badaroe: Bideganekoa, Etxegoiena, Ormagoiena, Uribarrigoikoa, Zaituabeazkoa, ...

- entidatea geitu ezkeran, artikulua barik agertuko dira: Atxuloko kurutzea, Gazadiko sakona, Kurtziperioko mailak, Ondarrako atxak, Zintxiriko zubia, Zumarretako landea, ...

Agozkoan leku-izenak artikulua bakoak izan arren be, idazti zaarretan eta eurok abizen moduan erabilten dirala, orreotariko batzuk artikulua agertuten dabe: Benguria, Goikoetxea, Goitia, Etxebarria, ...

Leku-izenak berezko nortasuna artu eta izen arrunta lez erabilten ez danean “a” artikulua galdu ten dau, idatzikoan artikuluari eutsi arren: Alpapea / Aldapa, Arixia / Arixti, Arkidia / Arkidi, Beresia / Beresi, Etxeaurrea / Etxeaurre, Goikosoloa / Goikosolo, Lurbarria / Lurbarri, Solotxikia / Solotxiki, Ziiitza / Ziiitza, ... Artikuludunak izen barriagotzat artuten dira.

## Azken ondorioak.

Orain 30 urte askoz be geiago eta zeatzago batuko genduan, lurgintzan ibilitako azkenengoen artean asko, geienak, il diralako, aberastasun ori eurakaz lurpera eroanda.

Galdu baino leen egin bearreko bearra izan da (zaarrak, baserritarrak). Gazteak, zoritxarrez, tutik



ez edo arean gitxi dakie toponimia arloan, soloan edo basoan ez diralako ibili/ibiltzen. Arlo orretan jakitun egoteko be aalegin gitxi egin/egiten dabe, ez dabe-eta orren bearrizan andirik ikusten. Bestetik, gazteak ez dira “errian” bizi, kotxearen kulturaren bizi dira. Leen errian, baterik bestera askoz geiago oinez ibilkeran, beste erritarrakaz errezago egiten ziran artuemonak. Gaur egun ez dira artuemonok leengoan beste egiten (alboko etxeen izenak jakin ez). Erriko bizimodua eta ekanduak sano aldatu dira. Norberaren lurren izenak jakin ezda, zer esanik be ez inoren solo edo basoen izenak. Alan bada, toponimia galduz doa.

Gizaldi askotan bizitako egoera sozialaren ispilua ikusi dogu erriko toponimia etxerik etxe batuten ibili garanean. Bakiotar asko errentadore izan dira eta badira gaur egun, oraindikarren, beste asko be asko errentadore izandakoak dira. Oneen guztionen ugazabak andiki gitxi batzuk izan dira (markeak, dukeak, aberatsak), espainiarrak geien-geienak, inoz be errira etorten ez ziranak. Orrek erakusten dau, argi ta garbi, familia askok eroandako/bizi izandako egoera sasi-feudala.

Menpekotasun kulturaletik urteteko euskal berbe-tea bere osotasunean jagotea bear-bearrezkoa dogu Erri lez. Orren barruan euskal fonologiaren arauak. Arau orreen arabera euskeraz irakurten eta euskeraz irakastea, eskoletan zein euskaltegietan, ezinbestekoa da. Toponimia, esate baterako.

Toponimia bera irakastea lagungarri izango da euskal nortasunari eusteko. Errian errikoa, gitxienez. Errian erriko toponimia irakatsi aal izateko, leenengo-leenengo, guk egindako lango bear asko

bearko dira Euskal Erriko erri guztietan. Toponimia normaldu ezkerroan, euskereari berari eusteko beste bide bat zabalduko deutzogu.

Uste dogu egoera bardintsu bizi dogula Euskal Erri osoan. Euskal Erriko leku guztietan toponimia aalik arinen batuteari, bada, bear-bearrezkoa deritxogu.


Toponimiagaz batera, bide batez, bestelangoak be batu doguz: erriko euskerea, ekanduak (ikazgintzea, otzaragintzea, ...), kontu zaarrak, ... Esate baterako, barruko isoglosak zeazteko argibideak: dxen/seuen, dxakon/akion, ...

Etxerik etxe ibili izanak onetarako eta geiagorako emoten dau. Orreen guztiorreen ganean, barriemoileen eta gure arteko artuemonak nabarmenduko doguz. Lagun barriak eginkeran, etxe askoren atea zabalik lotu jakuz urrengorako, bearrezkoa bada. Ori ezin leiteke ain errez neurtu edo baloratu.

Aitatu bearrekoa da, egon garan etxe guztietan ondo be ondo esan euskuela. Beste alderdi batetik be, eskuen artean darabilgun bearrak erritarren artean zelan edo alango interesa sortu eta sortuko daualakoan gagoz.

Amaituteko, bear au egiteko bakiotarrok guri emondako laguntzino zabalagaitik eskerrak biotz-biotzez emon gura deutseguz lerrootatik. Erriarena dana erriari atzera emon.

Beioake Iñaki Gaminderi zein beraren laguntzaileai Ester Elgoibar eta Ander Olalderi be gure eskerrik beroena, Bakioko toponimiaren ganean egindako aalegin andiagaitik.







## Barriemoileak.

Erriko agozko toponimia edo lekuen izenak batuten ibili gintzazan, bada, 1999. eta 2000. urte biotan, eta baita leku-izen mardoa batu be. Or alderdi bi egon ziran: bateko, agozko arloa, eta besteko, arlo idatzia. Agozkoa batuteko, etxerik etxe ibili bear izan genduan nor edo agaz egoteko. Etxe askotara joan gintzazan, eta erritar askori eurak ekiezan leku-izenak batu geuntsezan. Bearra luzea baina polita izan zan. Esan bear dogu be, ederto baino obeto esan eta ondo be ondo lagundu euskuela erritarrak. Orren argibiderako, ona emen lagundu euskuen guztien izen-abizenak:

ABIO AGIRRE, Feliziana

ABIO AZKORRA, Jose Mari

ABIO BASALDUA, Patxi

ABIO BILBAO, Pedro

ABIO ELORTEGI, Floren

ABIO ERKOREKA, Juan

(GOITISOLO - Goitxisoló)

(GOITISOLO - Kátikene)

(BEITIA - Beitzí)

(ERROTABARRI - Errótabarri)

(ARMURUA - Armurú)

(ARETXETA - Arítxeta)

- |                               |                                    |
|-------------------------------|------------------------------------|
| ABIO LASA, Andres             | (AZERETXOKOERROTA - Asitxokorrotá) |
| ABIO LAUZIRIKA, Luisa         | (AURREKOETXEA - Álardone)          |
| ABIO YUECO, Fidel             | (ZAITUA - Saitxú)                  |
| AGINAGA GAUBEKA, Begoña       | (BALANDA - Balandá)                |
| AGIRRE AZKORRA, Asun          | (ORTUBEGOIKOA - Ortúbe)            |
| AGIRRE AZKORRA, Jose Mari     | (ORTUBEGOIKOA - Ortúbe)            |
| AGIRRE MAURI, Luzia           | (URKITZAURRE - Úrkitzorre)         |
| AGIRRE MAURI, Paulo           | (URKITZAURRE - Úrkitzorre)         |
| AGIRRE ORMAZA, Pedro          | (GARAITXU - Gáraitxu)              |
| AGIRRETXU GOIRIENA, Migel     | (LARRASKOAGA - Indxarráne)         |
| ALZAGA GOENAGA, Agustin       | (LARRAZABAL - Lárrondo)            |
| ANSORREGI MARKAIDA, Antoni    | (OTSATEGITXU - Otzatéitxu)         |
| ARMENDARIZ BARTUREN, Luzio    | (UGALDETXU - Ugéldetxu)            |
| ARTETXE ZUBIZARRETA, Unai     | (ZUBIAURREBEKOA - Súbidxorre)      |
| ASLA ARMENDARIZ, Koldo        | (MINTEGIBEKOA - Mintzíri)          |
| AZKORRA BARTUREN, Mari Karmen | (BAZTERRETXEA - Bastérretze)       |
| BARAIAZARRA APRAIZ, Moises    | (ITURRIAGA - Itxúrridxa)           |
| BARRENETXEA BARANDA, Juan     | (ERMUAGOIKOA - Goiko Ermú)         |





BARTUREN ABIO, Floren	( <b>BAZTERRETXEA</b> - Bastérretze)
BARTUREN ABIO, Juana	( <b>BAZTERRETXEA</b> - Bastérretze)
BARTUREN AGIRRETXU, Raimundo	( <b>ZAITUABEAZKOA</b> - Bióska)
BARTUREN LASA, Isidro	( <b>GOIKOLEA</b> - Goikolá)
BARTUREN SASIAIN, Agustin	( <b>ERROTATXU</b> - Panadiené)
BARTUREN SASIAIN, Luzio	( <b>ERROTATXU</b> - Panadiené)
BARTUREN SASIAIN, Mari	( <b>ERROTATXU</b> - Panadiené)
BARTUREN SODUPE, Anizeto	( <b>ARIETXE</b> - Arietzé)
BARTUREN URIARTE, Maria Eugenia	( <b>GAZADI</b> - Ibíllorre)
BARTUREN URIRATE, Modesto	( <b>GAZADI</b> - Ibíllorre)
BENGURIA INTXAUSTI, Mari Karmen	( <b>ORBIETA</b> - Órbieta)
BENGURIA INTXAUSTI, Teodoro	( <b>ORBIETA</b> - Órbieta)
BIDASOLO RENTERIA, Ana Mari	( <b>GARATEGI</b> - Gáratei)
BILBAO ARMENDARIZ, Felix	( <b>ZABALENA</b> - Sabalené)
BILBAO ARRIETA, Fermin	( <b>GOIENZABAL</b> - Kontxábale)
BILBAO BILBAO, Jose Ramon	( <b>MURUAGA</b> - Eurrekoetzé)
BILBAO GOITIA, Anjel	( <b>BUTROETXE</b> - Búurtze)
BILBAO GOITIA, Jose Antonio	( <b>BUTROETXE</b> - Búurtze)
BILBAO PEREZ, Jesus	( <b>GORRONDONA</b> - Gorrondá)
BILBAO SASIAIN, Gregorio	( <b>MINTEGIGOIKOA</b> - Kritoiéne)
BILBAO SASIAIN, Mari	( <b>MINTEGIGOIKOA</b> - Kritoiéne)
BOVEDA BILBAO, Jose Antonio	( <b>GOITIA</b> - Goitxí)
EGILUIZ BASTERRETXEA, Inazio	( <b>UGARTEBARRI</b> - Bénguridxene)
EIZAGIRRE ARANTZAMENDI, Jeronima	( <b>UGALDE</b> - Ugélde)
ELGEZABAL GARAI, Pedro	( <b>ERRENERIA</b> - Erreneridxé)
ELORRIAGA ELORTEGI, Migel	( <b>ORMATZA-ATZEKOA</b> - Ormátza)
ELORRIAGA GOIRI, Mari Karmen	( <b>AMETZAGA</b> - Amétza)
ELORRIAGA MARDARAS, Jabier	( <b>BENTABARRI</b> - Erdiko Bénta)
ELORTEGI ARRIETA, Martin	( <b>URGITXI</b> - Urgitxí)
ENSUNZA ELGEZABAL, Abraham	( <b>BIDEKURTZIO</b> - Bidekúrtzio)
ERAUZKIN MARDARAS, Jesus	( <b>LANDABASO</b> - Landabasó)
ERAUZKIN MARDARAS, Maria	( <b>LANDABASO</b> - Landabasó)
ERAUZKIN IMATZ, Felix	( <b>ERMUABEKOA</b> - Beko Ermú)



ERKOREKA ERKOREKA, Mari	(ERKOREKA - Sandxoálde)
ERKOREKA ERKOREKA, Martin	(ERKOREKA - Sandxoálde)
ERKOREKA ERKOREKA, Sabino	(ERKOREKA - Sandxoálde)
ETXEBARRIA LAUZIRIKA, Maria Luisa	(IBARRABEKOA - Iberra)
GARAI BARTUREN, Ale	(LUZARRAGABEKOA - Lúsarra)
GARAI BARTUREN, Mari	(LUZARRAGABEKOA - Lúsarra)
GARAI GARAI, Benita	(URIBARRIBEKOA - Uribarri)
GARAI GARAI, Manuela	(URIBARRIBEKOA - Uribarri)
GARAI GARAI, Modesta	(GARAIETXE - Martinpodá)
GARAI ORMAZA, Eduardo	(URGURA - Urgúru)
GARAI REMENTERIA, Cristina	(ARDANTZA - Ardántza)
GARAI URIAGEREKA, Tere	(ZAITUABEKOA - Larrené)
GARZIA ZABALA, Mari	(BESONDONA - Besondá)
GAUBEKA MENTXAKA, Eufemia	(OLATXU - Olátxu)
GOIARROLA ARRIEN, Ramon	(ARRIEN - Arrién)
GOIENETXEA ARRUZA, Mercedes	(ETXEBARRIALDE - Etzebarriálde)
GOITIA LEGARRETA, Jose	(ANDRAMARIETA - Andramitá)
IBINAGA AURREKOETXEA, Juan	(UGARTEBEKOA - Ugérte)
IMATZ ELGEZABAL, Patxi	(BIDEZABAL - Txoberné)
IMATZ OLAZAR, Justo	(GISASTI - Gisísti)
IMATZ URIARTE, Eugenio	(URKIDI - Urkídi)
IMATZ URKIAGA, Jesus	(ERDIKOETXE - Erdíkotze)
ITURAIN OLEAGA, Jose Mari	(BEKOETXE - Patxulené)
ITURAIN OLEAGA, Juan	(BEKOETXE - Patxulené)
JAUREGIZAR BARTOLOME, Pedro	(URIBE - Uríbe)
JAUREGIZAR OLAZAR, Blas	(MINITUA - Mintxú)
JAUREGIZAR UGARTE, Atanase	(JAUREGIZAR - Dxéurisarre)
LANDALUZE ERKOREKA, Iñaki	(AZERETXOGOITIA - Asitxogoitxi)
LANDALUZE URRUTIA, Felisa	(TABERNATXU - Tabernatxu)
LARRAURI BILBAO, Josepa	(MUXIKENA - Múxikene)
LASA ETXEBARRIA, Antonio	(ZEUBA - Séuba)
LASA LAUZIRIKA, Hilari	(ZEUBA - Séuba)
LASA ZUMARRAGA, Teresa	(AGIRRE - Agárre)

LAUZIRIKA EGIA, Eburne	(IBARRETXE - Iberretzé)
LAUZIRIKA EGIA, Mari	(IBARRETXE - Iberretzé)
LEGARRETA MARKAIDA, Segundo	(URIZARRETA - Úsarreta)
LEGARRETA SASIAIN, Fermin	(MENDIALDAI - Mendiálde)
LEGARRETA SASIAIN, Jabier	(MENDIALDAI - Mendiálde)
LOPATEGI ABIO, Manu	(ZAITUENA - Sáitxune)
MADARIAGA INTXAUSTI, Dolores	(ONDARRA - Ondarré)
MADARIAGA ORTUZAR, Jesus Mari	(ALTZAGA - Áltza)
MARKAIDA ARANBURU, Rosario	(ZUBIAURREBEKOA - Súbidxorre)
MARKAIDA ERKOREKA, Marisol	(AZERETXO - Asitxó)
MARKAIDA JAUREGIZAR, Kristina	(UGALDENA - Úgeldene)
MAURI IMATZ, Martina	(SAGARRAGA - Sagárre)
MAURI IMATZ, Txomin	(SAGARRAGA - Sagárre)
MENDIZABAL ARRIETA, Eburne	(ELORRIETA - Elórreta)
MEÑAKA ORMAZA, Pedro	(URIZARRETA-AURREKOA - Úsarreta Eurrekoa)
MURUAGA OROZKO, Jose Luis	(LUZARRAGABEKOA - Lúsarra)
MURUAGA UGALDE, Jose	(OSTIENA - Óstiñe)
MURUAGA VIDAL, Frantzisko	(PERDIOTXENA - Pértxene)
OBIETA GARAI, Begoña	(IBARGARAI - Fulgenetzié)
OLASKOAGA AGINAGA, Isabel	(BALANDA - Balandá)
OLASKOAGA MARDARAS, Fernando	(BASARTE - Basarté)
OLASKOAGA MARDARAS, Mari	(BASARTE - Basarté)
OLASKOAGA URIAGEREKA, Iñaki	(LARRASKOAGAGOIKOA - Gérekane)
OLAZAR BENGURIA, Andres	(BENGURIA - Bengurí)
OLAZAR BENGURIA, Jesus	(BENGURIA - Bengurí)
ORMAZA BILBAO, Jesusa	(OTSATEGI - Otsatéi)
ORMAZA BILBAO, Julian	(GOIENETXE - Goidxénetze)
ORMAZA ELORTEGI, Ander	(IPARRAGIRRE - Iperragírre)
ORMAZA GANGOITI, Juan Antonio	(PORTUONDO - Pórtuondo)
ORMAZA MURUAGA, Iñaki	(JAUREGI - Dxéuri)
ORMAZA RENTERIA, Juan	(BARTURENBEKOA - Beko Bartúne)
ORMAZA UGARTE, Jon	(URKITZA - Urkítze)
ORMAZA URIARTE, Rosario	(ALDEKOA - Aldekó)

OROZKO MURUAGA, Jose	(AMUETXEBARRI - Amútzebarri)
ORTUZAR MARKAIDA, Mari	(BEKOETXE - Bekotzé)
RENTERIA GARAI, Josetxu	(URIBARRIBEKOA - Uribarri)
RENTERIA GARAI, Patxi	(URIBARRIBEKOA - Uribarri)
RENTERIA GAUBEKA, Gregori	(GAUBEKA - Gauéka)
RENTERIA FERNANDEZ, Jose Domingo	(ETXE BARRIA - Etxébarri)
RENTERIA FERNANDEZ, Lourdes	(ETXE BARRIA - Etxébarri)
RENTERIA IBINAGA, Feliziano	(IBARRABEKOA - Ibérra)
RICOTE ELGEZABAL, Marutxi	(MENDIGUREN - Mendígune)
SAN PELAIO RODRIGUEZ, Jose Ramon	(EGIAETXEBARRI - Egítzebarri)
SAN SEBERIANO BILBAO, Juan	(ELEXPURUERROTA - Kátxone)
SANTANA ITURAIN, Sabina	(ZUMUSU - Súmusu)
SASIAIN URIARTE, Miren	(MENDIALDAI - Mendiálde)
TELLETXEA IMATZ, Luis	(TXABOLETABEKOA - Sísillone)
UGALDE ENDEMAÑO, Jesus Mari	(ETXETXUBARRI - Etxétxubarri)
UGALDE IBINAGA, Josefina	(BEKOERROTA - Bekorrotá)
UGALDE IBINAGA, Pakita	(BEKOERROTA - Bekorrotá)
UGALDE JAUREGIZAR, Gregorio	(URIARTEBARRI - Údxarte)
UGALDE ORMAZA, Julian	(GARAIA - Gárai)
UGARTE GURTUBAI, Eusebio	(OLABARRI - Olábarri)
URIAGEREKA EIZAGIRRE, Luis	(UGALDE - Ugélde)
URIAGEREKA LASA, Nikolas	(OSIÑAGA - Usiñá)
URIAGEREKA ORMAZA, Bitori	(LUZARRAGAGOIKOA - Bastéi)
URIARTE BASAÑEZ, Martina	(ARTZA - Ártza)
URIARTE ELORTEGI, Jabier	(INTXAURRAGA - Íntxarra)
URIARTE INTXAUSTI, Eustakio	(URKITZAURRE - Úrkitzorre)
URIARTE INTXAUSTI, Jesus	(ERRENTERIA - Erreteridxé)
URIARTE PICO, Sabin	(ALDEKOA - Aldekó)
URIARTE REMENTERIA, Jesus	(URIARTE - Udxarté)
URIARTE REMENTERIA, Juan Antonio	(URIARTE - Udxarté)
URIARTE REMENTERIA, Pili	(AREAGA - Ariá)
URIARTE UGALDE, Felix	(ZAITUTXU - Saitxútxu)
URIARTE UGALDE, Julia	(ERREMENTERIA - Mákune)



URIARTE URIARTE, Jon	(URETA - Úreta)
URIARTE URIARTE, Jose Mari	(BARTURENGOIKOA - Goiko Bartúne)
URIARTE URIARTE, Kepa	(URETA - Úreta)
<b>URIARTE URIARTE, Maria Josefa</b>	(BARTURENGOIKOA - Goiko Bartúne)
URRUTIA BARTUREN, Josu	(IBARZABAL - Ibarróndo)
YUECO MADARIAGA, Ines	(ABAROA - Abároa)
YUECO MADARIAGA, Migel	(ABAROA - Abároa)
ZABALA BARTUREN, Enrike	(ARTETXE - Ártetze)
ZABALA BARTUREN, Eugenia	(ARTETXE - Ártetze)
ZABALA BARTUREN, Gillerma	(ARTETXE - Ártetze)
ZABALA LARRAZABAL, Mario	(BASIGOETXE - Basidxó)
ZABALA LARRAZABAL, Sabino	(BASIGOETXE - Basidxó)
ZABALA SANTANA, Floren	(ZUMUSU - Súmusu)
ZIRARDA BOLLEGI, Jose Ramon	(IBARRABARRI - Iberrabarrí)
ZUMARRAGA MURUAGA, Justa	(GAZTAÑATZARRIETA - Kúrtzikene Bekoa)
ZUMARRAGA MURUAGA, Teodoro	(GAZTAÑATZARRIETA - Kúrtzikene Bekoa)


*Beioake, bada, bear ori egiten ibili gintzazanon biotz barruko eskerrik eta beroena dan-danori, Inaki Gaminde, Ester Elgoibar, Ander Olalde eta lauron aldetik.*

**Iniaki MARTIARTU**  
**2010eko jorraila**



## Bibliografia.

- "Diccionario de Autoridades del Euskera", M. Sota, P. Lafitte eta L. Akesolo, La Gran Enciclopedia Vasca, 1976.
- "Diccionario Vasco-Castellano", Plazido Mujika, Mensajero, 1981.
- "Afijos Vascos", Plazido Mujika, Mensajero, 1982.
- "Euskal Dialektologiaren Hastapenak", alkarlanean, UEU, 1987.
- "Orotariko Euskal Hiztegia", Koldo Mitxelena eta Ibon Sarasola, Euskaltzaindia, 1987.
- "Euskal Fonetika eta Fonologia", Juan Manuel Etxebarria Aiesta, Labayru Ikastegia, 1991.
- "Fogueraciones de Vizcaya del siglo XVIII", Jaime Kerexeta, Labayru Ikastegia, 1992.
- "Iurreta Elizateko Euskara eta Toponimia", Alberto Errazti Igartua, Iurretako Udala eta Gerediaga Alkartea, 1994.
- "Toponimia de la Anteiglesia de Arrigorriaga", J.J. Agirre Jauregi, Arrigorriagako Udala eta Bizkaiko Foru Aldundia, 1996.
- "Hiztegia 3000", Bostak Bat, Adorez 7, 1996.
- "Ermu Aldeko Toponimoak", Floren Usia Barbara, Laudioko Euskaltzaleen Batzarrea, 1996.
- "Basauriko Toponimia", Ander Ros eta J.M. Cabello, Labayru Ikastegia eta Basauriko Udala, 1997.
- "Deba Ibarreko Euskeria", Koldo Zuazo, Deba Ibarreko Udalak, 1999.
- "Sinonimoen Hiztegia", Bostak Bat Lantaldea, Adorez 8, ELKAR, 1999.
- "El Gordejuela de Antaño", Kastañabakotxa Taldea, Gordexolako Udala, 2000.
- "Bakioko Toponimoen Azentueraz", Iñaki Gaminde, 2001.
- "Lekuzko Atzizkiak eta Lezoko Etxeetako Izenak", Iñaki Gaminde, Lezoko Udala eta





## Laguntza Eske

-1-

Bizi bidean nabil  
estu eta larri,  
neukan fede sendoak  
deustelako igesi.  
Naiko pozik nenbillan,  
oin, barriz, negarti.  
\*Egin nagizu, Ama,  
fedez barri-barri!

-2-

Illunetan sartu naz  
bizitza tristean,  
galdurik Jaungoikoa,  
galduta munduan.  
Itsu naz, zoritxarrez,  
buru ta gogoan,  
\*Gida nagizu, Ama,  
zerura bidean!

-3-

Bildurrez ta ikaraz,  
nago nekepean,  
poza lortu ezinda,  
pozez bizi naian.  
Zu, barriz, Ama, zagoz  
irmo kuruzpean.  
\*Eldu naizu besotik,  
artu zure ondoan!

-4-

Gazte ziñala, Jaunak,  
Nazaret etxean,  
baietza eska eutzun,  
gizon egin naian.  
Zure antzera, Ama,  
nago ikarean,  
\*Lagun nagizu, neure  
klaretar-eskeintzan!

-5-

Bildurgarria dogun  
itxas-oldartuan,  
egiz aurkitu ziñan  
gurutze aldian.  
Baño zuk, adoretzu  
garaitu zenduan.  
\*Babes nagizu, Ama,  
griñaren orduan!

-6-

Luze naiz labor izan  
bizitza-bidea  
beti sentitzen dodaz  
gose ta egarria.  
Zorionez ba daukat  
grazizko iturria:  
\*Atondu eidazu, Ama,  
Meza-Oparia!

-7-

Nequak otza dakar,  
udeak beroa,  
pekatuak erio,  
graziak bizia.  
Zeruko Ama laztona,  
graziaz betea,  
\*Zure Biotza bekit  
suteגי bizia!

olerkia





# Galtzear maitasuna

-1-

Loratxu bat zuretzat  
 ebagiz batera,  
 loratxu polit ori  
 galtzen asi zara.  
 Zimeltzen asten jatzu,  
 ori kolorea,  
 aziak be usteltzen,  
 ostoak lurrera,  
 ta udabarriak dakar  
 neguko itxura.

-2-

Txoritxu bat eskuan  
 ba dozu lotuten,  
 asi zara, beingoan,  
 txoria galduten:  
 basoan kanturikan  
 ez dozu entzuten,  
 txorikumetxurik be  
 ez dozu ikusten,  
 alaitasuna barik,  
 dana da ituntzen.

-3-

Askatasun bitxia,  
 jaurtitzen ba dozu,  
 gauzarik ederrena  
 galdutzat emoizu.  
 Tabetasuna bage  
 ezin aukeratu,  
 edozeñek menpean  
 zapalduko zaitu,  
 ta zure nortasuna  
 ezeztuko jatzu.

-4-

Aitak bere semea,  
 urruntzen daunean,  
 murgildu bear leuke  
 bizitza barruan.  
 Gora berak gaindituz  
 egunerokoa,  
 ta zuzenez jokatzu  
 irmotasunean,  
 barriztuta letorke,  
 etxera itzultzean.

-5-

Oroitu eizu beti  
 egi au sakona:  
 neurtu eziñeko bat  
 dala askatasuna.  
 Ta lasai ta patxaran,  
 onartzen dauana,  
 beragaz eukiko dau,  
 beti poztasuna,  
 izanaz beretzako  
 sari ederrena.

-6-

Ondoan euki eizuz,  
 leial dozuzanak,  
 iñoren beldur barik,  
 maite zaituenak.  
 Daukien izen ona,  
 ospe ta txaloak,  
 ezeretzat artuaz  
 euren arazoak,  
 orreik dira zuretzat  
 onetan onenak.

-7-

Mundu osoan dagon  
 aberastasuna,  
 izan daike danontzat  
 zoriontasuna.  
 Baña gitxi batzuen  
 esku da geiena,  
 niretzat niretzako,  
 niretzat zuena,  
 olan bizi diranak  
 dakarre ondarena.



-8-

Maite ditut larrosak,  
 maite txoritxuak,  
 egunez eguzkia  
 ta gaubez izarrak.  
 Maite ditut margoak,  
 maite abestiak,  
 errekatxu baztarrak,  
 pago ta aretxak.  
 ; Sukartu nagiala  
 maitasun sugarrak!.

Munetxek

olerkia

# Zazpi utsak



**IPUIN SARIKETA**  
(BILBAOKO UDALAREN BABESPEAN)

IRABAZLEEN IZENAK

1º Saria. Asier ETXABURU

2ª Saria. Jose Mª MURUA

3ª Saria. Asier LEGARRETA



**Bilbao**

UDALA  
AYUNTAMIENTO

4ª Saria. Arantza LEANIZ

5ª Saria. Palmi MERINO

## EUSKERAZALEAK

### Urteroko

### Batzar Nagusia

Martiaren 31. egunean  
EUSKERAZALEAK alkarteak urteroko  
Batzar Nagusia egingo dau  
Lenengo deia: 19:00etan eta  
Bigarren deia 19:30etan

### Asamblea

### General Anual

El 31 de Marzo celebrará la Asociación  
EUSKERAZALEAK su Asamblea General  
anual  
Primera convocatoria 19:00 tarde  
Segunda convocatoria 19:30 tarde

### ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar .....

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,  
an daukadan                      zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!





Goiko mendian elurra dago  
Errekaldian izotza  
Zu ganik aske nago ta  
Pozik daukat biotza  
Uda astean iguzkitara  
Urtzen denean elurra  
Zuk ere sendiko duzu  
Urrikiaren uztara